

elkarberri 64

EFE Oren
I. Batzar
Nagusia

Colegio Oficial
de Fisioterapeutas
del País Vasco



Euskadiko
Fisioterapeuten
Elkargo Ofiziala

abril - junio 2019 / Ejemplar gratuito
2019ko apirila - ekaina / Doako alea

Depósito Legal: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

próximos cursos

datozen ikastaroak

INDUCCIÓN MIOFASCIAL NIVEL I

maiatzaren 31 - Vitoria - Gasteiz - 31 de mayo



ACONDICIONAMIENTO PRE Y POST PARTO CON PILATES

ekainaren 7 - Bilbao - 7 de junio



FISIOTERAPIA EN LAS DISFUNCIONES ANORECTALES

ekainaren 15 - Bilbao - 15 de junio



El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.

Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web colegial (www.cofpv.org)

EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharrianak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arazoak tarteko direla.

Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazak, webgunearen bidez egin beharrekoa (www.cofpv.eus)



Edurne Andueza

Tesorerera del COFPV
EFEO-ko diruzaina

editorial

editoriala

el ámbito sanitario era el personal de enfermería el que lo realizaba, y además, eran pocas las patologías que se trataban con fisioterapia en la Sanidad Pública, por lo que la población utilizaba los recursos comentados para dar respuesta a sus dolencias.

De esos primeros años, pasamos a que nos llamaran "masajistas" durante mucho tiempo. Poco a poco, con el trabajo de cada uno de nosotros, los fisioterapeutas, apoyo de Asociaciones, creación de Colegios Profesionales, aumento considerable del acceso a la fisioterapia dentro de la Sanidad, hemos ido dando un lugar y un nombre a nuestra profesión. Me enorgullece ver la palabra FISIOTERAPIA en diferentes centros, en medios de comunicación, en boca de la población. Quizá deberíamos recordar los comienzos de nuestra profesión para poder visualizar lo que hemos avanzado.

Es cierto que seguimos padeciendo el intrusismo al igual que otras profesiones, pero debemos seguir demostrando quienes somos día a día. Realmente, lo que me preocupa en este momento es "quienes

queremos ser", puesto que siento que con el afán de que nuestros centros funcionen mejor que otros, se nos distinga del resto de nuestros compañeros,... estamos incurriendo en lo mismo que denunciábamos. Terminamos realizando prácticas que no son de nuestra competencia y pasan a ser un intrusismo hacia otras profesiones, terminamos colocando en las entradas de nuestros centros nombres que no son FISIOTERAPEUTA, aumentando la confusión en la población, en definitiva, terminamos dividiéndonos. Siento, que estas acciones lejos de ayudarnos pueden hacer que la Fisioterapia padezca un retroceso en todo ese avance que ha vivido.

Por ello, me gustaría que reflexionáramos todos, en lo que hacemos y aportamos a nuestra profesión. Somos FISIOTERAPEUTAS, independientemente de las técnicas que apliquemos en nuestro trabajo y el ámbito en el que realicemos nuestro trabajo. Por ello animo a todos que lo que divulguemos sea eso mismo: FISIOTERAPIA.

Quienes Somos, Quienes Queremos Ser

Todavía recuerdo el día en que decidí estudiar Fisioterapia. Nadie a mi alrededor conocía que era aquello que había decidido hacer, ni siquiera entonces lo identificaban con el masajista. Por supuesto, existían figuras que realizaban prácticas dirigidas al bienestar de las personas, que eran utilizadas por la gente cuando padecía diferentes lesiones u enfermedades. Recuerdo los nombres de "petrikillo", "brujo", "curandero", "sanador"... pero ¿fisioterapeuta? ¿Qué era eso? No me resultaba nada fácil explicar en qué consistía esta "relativamente" nueva rama sanitaria. Hasta poco tiempo antes, en

Nor gara, nor izan nahi dugu?

Oraindik gogoratzen dut fisioterapia ikastea erabaki nuen eguna. Nire inguruko inork ez zekien zer zen ikastea erabaki nuen hura, eta ez zuten masajista moduan identifikatzen. Noski, bazeuden pertsonen ongizatearen aldeko praktikak egiten zituzten figurak, eta jendeak haiengana jotzen zuen lesio edo gaixotasunak zituenean. Gogoratzen ditut izen horietako batzuk: "petrikilo", "belagile", "sendalari", "sendatzaile"... Baina fisioterapeuta? Zer zen hori? Zaila egiten zitzaidan azaltzea osasun-arlo berri samar bat zela. Ordura arte, osasun-arloan erizainak arduratzen ziren lan horretaz, eta, gainera, patologia gutxi tratatzen ziren fisioterapiarekin osasun-sistema publikoan; beraz, herritarrek beste baliabide horiek erabiltzen zituzten beren minak sendatzeko.

Lehen urte horietan, "masajista" deitu ziguten etengabe eta denbora-epe luzean zehar. Pixkanaka, gutako bakoitzaren lanarekin, fisioterapeutekin, elkarteen babesarekin, elkargo profesionalen sorrerarekin eta osasunaren barruan fisioterapiak lortu duen sarbide handiagoarekin izena eta tokia eman dizkiogu gure lanbideari. Harro sentitzen naiz FISIOTERAPIA hitza zentroetan, hedabideetan eta herritarren ahotik entzutean. Agian gure lanbidearen jatorria ekarri beharko genuke gogora egin ditugun aurrerapenez jabetzeko.

Egia da gaur egun, beste lanbide askotan bezala, oraindik ere intrusismoa gure lanbidearen parte dela, baina nor garen erakusten jarraitu behar dugu egunero. Egia esan, une honetan kezkatzen nauena "nor izan nahi dugu?" galdera da, sentitzen baitut gure zentroek hobeto funtzionatzeko, gainerako lankideengandik bereizteko... egin dugun ahalegina dela-eta salatzen dugun hori ari gara

egiten. Gureak ez diren praktikak egiten ditugu askotan, eta intrusismo bihurtzen dira beste lanbideekin. Gure zentroen sarreretan FISIOTERAPEUTA ez diren izenak jartzen ditugu, eta herritarren artean nahasmena areagotzen dugu; ondorioz, elkarrengandik banantzen gara. Uste dut ekintza horiek, lagundu ordez, atzerapenak eragin ditzaketela fisioterapiari, eta orain arte aurreratutakoa bertan behera utzi.

Horregatik, guztiei egiten diet hausnarketarako deia: zer egiten dugun eta zer ematen diogun gure lanbideari. FISIOTERAPEUTAK gara, gure lanean aplikatzen ditugun teknikak eta jorratzen dugun alorra edozein direla ere. Hori dela eta, eskatzen dizuet horixe bera dibulgatzeko: FISIOTERAPIA.

sumario

aurkibidea

2

cursos
ikastaroak

3

editorial
editoriala

4

noticias
berriak

10

formación
prestakuntza

14

artículo
artikuloa

18

asesoría jurídica
aholkularitza juridikoa

22

anuncios
iragarkiak

26

colegiados
elkargokide

Presidencia y Dirección Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya

Coordinación Koordinazioa:

Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo

Realización y Maquetación Gauzatzea eta Maketazioa

J&J Creativos

Fotografía Argazkigintza

ORO

Edita Argitalpena

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Publicación trimestral Hiruhilabeteko argitalpena

3.010 ejemplares

Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.

Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe. Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

Ejemplar gratuito para distribuir a los/as colegiados/as
Elkargokideei emateko dohainezko alea



Batzar Nagusia

Apirilaren 13an, Vitoria-Gasteizko Santiago ospitaleko ekitaldi-aretoan, 2019ko lehen Batzar Nagusia egin zen.

Aurreko Batzarren akta onetsi ondoren, batzordeek azken Batzarretik eginiko jarduera garrantzitsuen berri eman zuten.

Hasteko, Iban Arrienek, EFEOko presidente gisa, Euskadin eta Estatuan lanbideak duen egoera orokorra eta balantzea azaldu zituen, eta azaletik errepikatu zituen aurreko Batzarrean Plan Estrategikorako proiektatu ziren politika-lerro garrantzitsuenak.

Nabarmendu zuen egoera orokorra "konplikatua" dela, kasu batzuetan etsigarria epe labur eta ertainean, eta zeinetan mehatxu irekiak adierazi eta artatu behar baitira, osasun-kolektiboen eta osasun-arlotik kanpokoaren eskukoak, baita gure eskumenen esparrurako saiakera eta mehatxuak ere.

Presidentearen mintzaldiaren ondoren, Roberto Romerok jakinarazi zuen eskaintako ordutegi-estaldurari eta Administrazio sailean inbertitutako giza baliabide eta baliabide materialei esker, zerbitzuaren beharrei arrazoizko erantzuna ematen zaiela.

Jarraian, Edorta Ansoleagak, Gobernu Batzarreko kide gisa, Intrusismoko nahiz Aholkularitza Juridikoko Batzordetik eginiko jarduerak laburtu zituen. Intrusismoko Batzordeak lan egiten jarraituko du herritarrak sensibilizatzeko zenbait kanpainaren bidez, lanbideari duintasuna emateko eta Fisioterapiaren arloko intrusismo profesionalari aurre egiteko helburuz. Aholkularitza Juridikoko Batzordeak, bere aldetik, besteak beste, zaindu, kontrolatu, babestu eta informatzeko bere lanarekin jarraituko du.

Ondoren, Komunikazio, Protokolo eta Publizitate Batzordeko arduradun June Ruizek 2018ko Komunikazioko urteko balantzearen laburpen xehatua egin zuen, honako alderdi hauek nabarmenduz:

- "12 hilabete, 12 osasun-gomendio" kanpainaren jarraipena, horren inpaktu mediatikoa oso garrantzitsutzat jo baita 2018an.
- Komunikabideekin harremanak sustatzeko apustu irmoa, geure informazio-educia sortzearen bidez, komunikabideetan elkargoaren presentzia finkatzeko. Zentzu horretan,

asko aurrezten ari gara inbertsioan, eta sare sozialak indartzen ari gara lanbidearen hedapen-bitarteko gisa.

Jarraian, Leyre Peñak, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketako Batzordearen arduradun gisa, azken Batzarretik eginiko jardueren aurkezpena eta laburpena egin zuen. Era berean, hurrengo urtean gauzatu nahi diren –momentuz behintzat– prestakuntza-proiektuen berri eman zuen. Horien artean, azpimarratzekoak dira onarpen nabarmena izan duten doako prestakuntza-eskaintzak.

Prestakuntzako Batzordearekin amaitu ondoren, Andrea Sclarik, EFEOko Gobernu Batzarreko kide gisa, Mendekotasun, Desgaitasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordean eta Kirol, Kirol Egokitu eta Inklusibokoan garatutako jarduera garrantzitsuenen laburpena aurkeztu zuen. Horien artean, elkargoak Arreta Goiztiarraren I. Egunean parte hartu izana eta Kirol arloko lanbideak arautzeko Legearen aurreproiektuaren egungo egoera nabarmendu nahi izan zituen.

Ondoren, Diruzaintzaren txanda iritsi zen, eta Edurne Anduezak, EFEOko



diruzain gisa, 2018 ekitaldiko balantzea modu xehatuan partekatu zuen. Balantzea positibotzat du, eta ez du interes-desbideratze handirik ikusten aurrekontuetan jarritakoaren eta inbertitutakoaren artean.

Zegokion botazioa egin ondoren, 2018 ekitaldiko kontuen balantzea onetsi zuten.

Eguneko aztergaien zerrendarekin jarraituz, Iban Arrienek, CGCFko presidente eta kontseilari denez gero, egoeraren, proiektuen eta, oro har, Kontseiluan lantzen ari diren intereseko gaien laburpen txiki bat egin zuen.

Galde-eskeen aurretik, fisioterapia-zentroen aldetik osteopatia hedatu eta horren berri emateko irizpideak eta gomendioak landu zituzten.

Roberto Romerok, azalpen honen arduradun gisa, lehenik, bereziki garrantzitsuak diren bi alderdi adierazi zituen: alde batetik, etsipena —Gobernu Batzarreko kide guztiek bere egiten dutena—, jende gutxi hartu duelako parte ziur asko berebiziko garrantzia duen gai bati helduko zaion batzar batean; eta, bestetik, sare sozialetan “informazio faltsuak eta interpretazio absurduak” zabaldutako direlako, “era bihurrian gonbidatzen dutenak



zalanztan jartzera elkargo-erakunde honek osteopatia-praktikarekin duen konpromisoa”.

Hori esanda, lehenik, alderdirik garrantzitsuenekin bat egiten du, bere ustez nabarmentzen eta justifikatzen dutenak irizpide batzuk bilatzea eta onartzea, arauari egokituta, osteopatiaren hedapenari eta publizitateari dagokionez, praktika hori egiten duten eta tresna eta/edo kontzeptu terapeutikotzat garatzen den fisioterapia-zentroetan. Hala, Romero jaunaren ustez, horri heltzea justifikatzen duen beharra honetan oinarritzen da:

- Desadostasun historikoa lanbidearen barruan, praktika osteopatikoa gure eskumen-eremuko funtsezko elementu nabarmentzat jotzeari buruz.
- Irizpide-aldaketak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publizitatea Kontrolatzeko Batzordean. Atzera bota du behin eta berriz osteopatiarekin lotutako termino batzuk erabiltzea eta publizitate-arloan ustiatzea.
- Gudu-zelai berri bat: “Pseudoterapien aurrean Osasuna Babesteko Plana”. Osasun eta Zientzia Ministerioek argitaratua.
- Madrilgo azken AEF Eztabaida Foroan parte hartzea, joan den otsailaren 9an, non horri buruzko ezinegonak trukatu ahal izan ziren, baita eztabaida sakon bat egin ere, kontzeptu terapeutiko horren inguruan.

Halaber, 100 zentrotan eginiko aterlan baten emaitzak adierazi dira; horren bidez ebaluatu da nola iragartzen duten osteopatia Euskadin errolatutako fisioterapia-zentroek.

Ebaluazio-prozesua azaldu ondoren, eta hura interpretatu ondoren, fisioterapeuta profesionalaren praktika klinikoa ezinbestean gidatzen duten araudien zerrenda erakutsi zen, baita zein irizpideri jarraitu behar zaien ere gure titulazio akademiko/profesionala eta zerbitzuen zorroa iragartzeko.

Adierazi beharra dago azalpenek iraun bitartean pertsona askok eta mintzaldi askoren bidez eskatu zituztela horren gaineko argibideak, eta/edo erakutsi eta partekatu zituztela ezinegonak, ezpada desadostasunak, azalpeneko zenbait irizpideren gainean. Eztabaida luzea izan zen, eta horrek erraztu egin zuen puntu hori sakonago aztertzea.

Beharrezko deliberazioen ondoren, Romero jaunak adierazi zuen Gobernu Batzordeak antzemandako akatsak zuzentzeko politika bat aktibatu eta garatuko duela, estrategia eta lanketa multzo baten bidez, honetan oinarrituko litzatekeen gomendio-esparru batean:

- Publizitatea Zaintzeko Unitatea aktibatzea (gomendio orokorrak igortzea araudiari jarraikiz, alertak, aholkularitza...).
- Fisioterapia-zentro bakoitzak egindako publizitatearen azterketa eta diagnostikoa egitea, baita txostenak ere.
- Fisioterapia Zentroentzako Osasun Publizitateko Gida diseinatu eta prestatzea.
- Publizitate egokiari buruzko prestakuntza-eskaintza/ tailer teknikoak antolatzea eta garatzea —estrategia hori Batzarrera bertaratu den kide batek eskatu zuen, eta Gobernu Batzordeak onetsi egin zuen, egokituz jo baitzuen—.

Batzarra amaitzeko, osteopatiari buruzko hainbat puntualizazio egin ziren, eta bertaratuetakoz batzuk adierazi zuten ez daudela ados “osteopata terminoa baztertzearekin”. Gomendatu zuten UNE nomenklaturari erreparatzea (Osteopatiako Osasun Arreta Emateko Europako Araua (EN16686) 2015).

Azkenik, EFEOk eskerrak eman nahi dizkie Batzarrera joan ziren guztiei. Eta, bide batez, elkargoaren proposamenetan modu aktiboagoan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Idazketa Kontseilua

Udal-hauteskundeak Hauteskunde-programa “fisioterapeutikoa”

EFEOk Gobernu Batzarraren xede eta eginkizunetako bat ordezkari politikoei fisioterapia modu egokian ulertzearen alde borrokatzea izan da beti, gure gaitasun eta jakingura profesionalak politika publikoetara aplikatzeko modu gisa, herritarren osasun integralaren onurarako. Ondorioz, beti eta gure aukeren neurrian, gure lehentasunen berri eman nahi diegu talde politikoei, datozen hauteskundeen harira.

Datozen udal- eta foru-hauteskundeei dagokienez, helburu edo lehentasun horiek zuekin ere partekatu nahi ditugu; hori dela eta, bidali dugun gutunaren kopia bat erantsi dizuegu.

Jaun/andre agurgarri horiek:

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko arduradun nagusi gisa, zenbat iradokizun partekatu nahi nituzke zuekin, hauteskunde-haunarketetan aintzat har ditzazuen (udal- eta foru-hauteskundeetako programa eta garapenerako gainerako bitartekoak). Gure eskariak funtzeskoak dira, eta, oro har, euskal gizartearen osasuna sustatu eta zaintzeko oinarritzko eskubidea mantentzea dute helburu; baita, zehazki, azken urteetan gure osasun- eta asistentzia-sisteman oinarritzko zutabe eta funtsezko aliatu gisa kokatu den osasun-lanbide honen babesa eta garapena sustatzea ere.

Gure ikuspuntutik, fisioterapeutek eta kolektiboak Euskadiko udal- eta foru-mailako Osasun Planak sortu eta garatzeko eta geriatriako jardueretan parte hartuz gauzatzen duen lanak ez du behar besteko protagonismoa. Egoera hori ez dator bat diziplinaren garapen profesional eta akademikoarekin, eta mugatu eta baldintzatu egiten du –betiere, gure iritziz– horrelako programen azken helburua erdiestea: osasuna sustatu eta zaintzea arreta integral optimoko baldintzetan.

Honen bidez, udal- eta foru-legeria garatu eta aberasteko eskatu nahi dizuegu, eskumen-esparruak –berezkoak eta/edo partekatutako– behar bezala babestea eta fisioterapeuten kolektiboa profesionalki garatzea ahalbidetzeko. Udal- eta foru-araudi irmo eta argirik ez egoteak –kasu batzuetan– eta horren laxotasunak –beste batzuetan– merezitako esparruaren babesa eta garapen profesionala arriskuan jartzeaz gain, osasuna babestu eta zaintzeko euskal gizartearen oinarritzko eskubidea ere –segurtasun-baldintza bikainetan eta bermeekin– kokolan jartzen du.

Kasu honetan, osasunari lotutako intrusismo profesionala eraginkortasunez jartzeari buruz ari gara –toki- eta foru-mailan–; izan ere, lakra historikoa da gure kolektiboarentzat eguneroko jardura profesionala. Hori guztia, estuki lotu ahal zaio pazienteen segurtasun-estrategiak direlakoan testuinguruari; kolektiboa autoritate gisa ikusteari zigor-ondoretarako, babes gehigarria eskainiz paziente/erabiltzaileek eragiten dituzten eta zerbitzuetan salatzen ez diren eraso fisiko eta ahozkoen aurrean, baita fisioterapeutak sailkapen funtzionarioetan aintzat hartzeari ere, a.1 azpitalde gisa, egindako unibertsite-gradua aintzat hartuta.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu geriatrian diziplina bera eta profesionalak sartzea: Euskadiko nagusiei arreta eman eta laguntzeko programetan fisioterapeuten presentzia areagotzea, modu koordinatuan, espazio soziosanitarioaren barruan eta printzipio osasungarrietan oinarritutako kirol-jardueran. Horren adibide izan daiteke Mendekotasun eta Autonomia Pertsonalaren Legeari lotutako balorazio-taldeetan eta prozesuetan fisioterapeuten figura integratzea, eta kirol-instalazioetako –udal eta/edo foru mailakoak– kirolari eta erabiltzaileei fisioterapeuten figura bermatzea kiroleko osasun-taldearen

barruan, kategoria profesional eta talde guztietan, baita kirol-instalazioetan ere.

Kontsumoko udal- eta foru-mailako administrazio-organismoak inplikatzeko beharra ere hautematen dugu, euskal gizartearen artean beharrezkoa den informazioa zabaldu eta babesteko, osasun-zerbitzuen “kontsumoari” dagokionez, sasiterapia eta jardura profesionalen eskaintza nahasgarri, eta batzuetan iruzurtsuen aurrean, osasuna arriskuan jar baitezakete. Illo beretik, akademiako prestakuntza eta ikasketa ez-arautuei heldu behar zaie, baita udal-webguneetan ikusten diren osasun-zerbitzuen eskaintza nahasgarri ere, bestelako zerbitzuak edo ongizatera soilik bideratutakoak biltzen dituen nolabaiteko “totum revolutum” batean.

Foru-ogasun eskudunen aurrean sustatu behar da EJZren epigrafeen egokitzapenei esker herritarrei bermatu ahal izatea osasun-jardura arautuak adituek gautzatzen dituztela, osasun-titulazio ofizialik ez duten pertsonen asmo gaiztoko babeseko argumentuak eta nahasmen-egoerak ekidite aldera.

Beste eskari bat da udal- eta foru-erakundeetan “enpresako fisioterapeuten” figura garatzea, lan-esparruan prebentzioa eta esku-hartze terapeutiko goiztiarra bermatzeko, honelako lesioak saiheste aldera: LG eta LI, sendatzeko epea eta LEI eta LElen ondore ekonomiko kaltegarriak murriztuz. Langileen era guztietako algia muskularrei heltzeko modurik onena da.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-historikoak zergei dagokienez Estatuarekin homogeneizatzea lortu nahi dugu, besteren kontura lan egiten duten profesionalentzat elkargoko kuota kengarria izan dadin PFEZn.



Era berean, erakunde arteko komunikazio-estrategiak sustatu nahi genituzke elkargo profesionalen eta unibertsitateen –publikoak nahiz pribatuak– artean, kolektiboaren garapen profesionala aberasteko xedez.

Halaber, oso interesgarria litzateke udal- eta foru-mailan fisioterapiari ikertzeko zuzkidura ekonomikoak areagotzea, fisioterapiako doktoreen zifra egokira iriste aldera, gizarte aurreratuaren estandarrei jarraikiz. Eta gero eta gehiago aregotuz gero, fisioterapiaren jarduerak –banaka edo batera– foru-mailan mezenasgo eta antzekoen lehentasun-esparruen barruan aintzat hartzea.

Ikuspegi integratzaile batetik, fisioterapia eta bere lanbideak jarduera fisiko osasungarria, osasunerako kirola edo kirol-errezeta sustatzen dituzten udal- eta foru-mailako kanpaina eta arau guztietan sar daitezela eskatu nahi dugu; izan ere, erreferentziazko osasun-profesional gisa, gure prestakuntza eta esperientzia direla eta, jarduera eta ariketa fisiko

terapeutikoa menperatzen dugu, eta osasunaren prebentzioan ere adituak gara. Foru-mailan, fisioterapiaren arloko sektore-mahai bat eratzea ere eskatu nahi dugu, fisioterapeuten eraginkortasuna eta errealitatea zaintzeko.

Osasun-profesionalen garapena babestu, sustatu eta bultzatzea herritarren osasunaren zaintza eta hobekuntzaren aldeko apustua egitea da.

Erakunde honek euskal gizartearen maitasuna du, askotan eskertzen baitute gure lana, eta horrela, fisioterapeutak eta beren eguneroko jarduera balioan jartzen dira. Bada, gizartearen Legebiltzarreko ordezkariak bat etorritik erantzutea erantzukizun osoz onartu beharko luketen lana da. Horrenbestez, aitorpen profesionalaren bide honetan gurekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu, non, zalantzarik gabe, erakunde prestua aurkituko baituzue elkargo profesional honetan.

Eskertuko genizuke adierazitakoaren inguruko zuen oharrak helaraztea, horien garrantzia haztatzeko eta zuen iritzia zuzenean ezagutzeko; hala, etorkizunean talde politikoei egingo ditugun estrategietan aintzat hartu ahal izango ditugu. Eskerrik asko alde zuretik.

Idazketa Kontseilua

29. Fisioterapia Jardunaldiak: ariketa terapeutikoa

Martxoaren 1ean eta 2an ariketa terapeutikoari buruzko jardunaldiak egin ziren, Onceren Fisioterapiako Unibertsitate Eskolak antolatuta (Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren menpekoa).

Parte-hartze handia izan zen, hizlarien maila altuari esker; nazioarteko figurak izan ziren gure artean: Jo Nijs doktorea, ariketa terapeutikoan eta min kronikoan aditua; Michel Le

Métayer doktorea; eta alor horretako aditu nazional garrantzitsuak.

Jardunaldien irekiera ofiziala ONCEren Fisioterapiako Eskolaren zuzendari berriak, Ana B. Varas doktoreak, egin zuen. Bere hitzaldian, ariketa terapeutikoa osasun-langileen berezko eginkizun gisa azpimarratu zuen, eta zehazki, fisioterapeutena, osasun-arlotik kanpoko langileek osasun-esparruko eginkizunak berenganatzeko

eginiko ahaleginaren aurrean.

Hitzaldiak 20-25 minutuko aurkezpenak izan ziren, denak ala denak interes handikoak, eta horien bidez, ariketa terapeutikoaren preskripzioa landu zuten, hainbat helbururekin: kirol-jatorriko patologietatik osatzea, min kronikoa tratatzea, patologia onkologikoak, arnasketari lotutakoak eta sistema linfatikokoak tratatzea, edo buru-osasunean eta lehen

mailako arreta-programetan ariketa terapeutikoak duen eraginkortasuna nabarmentzea.

Kirolean ariketa terapeutikoak dituen aplikazioen esparruan, Pedro Belón doktoreak, Real Madrid FC taldeko fisioterapeutak, "Adaptación del Tendón Lesionado a las exigencias propias del deporte de alta competición" izeneko hitzaldia eskaini zuen. Bere aldetik, Fco. Santomé doktoreak, kirolari paralinpikoen fisioterapeutak, fisioterapeutaren figuraren garrantzia nabarmendu zuen ariketa terapeutikoa preskribatzeko gaitutako profesional gisa, hezkuntzako langileek gure arloko eskumenak inbaditzeko egiten duten ahaleginaren aurrean.

Min kronikoa ere protagonistetako bat izan zen; horren harira, Miguel Ángel Galán doktoreak, adibidez, oso hitzaldi interesgarria plazaratu zuen: "Programa de educación en neurociencia del dolor y ejercicio físico en pacientes con dolor crónico. Resultados del ensayo clínico realizado en atención primaria". Bertan, gogorarazi zuen zein garrantzitsua den fisioterapiako ariketa terapeutikoaren ekarpena

29 JORNADAS DE FISIOTERAPIA
1 Y 2 DE MARZO DE 2019

EJERCICIO TERAPÉUTICO



ESCUELA UNIVERSITARIA
DE FISIOTERAPIA DE LA ONCE
Universidad Autónoma de Madrid





osasun-arretako maila honetan.

Jo Nijs doktoreak ere arlo horretan parte hartu zuen, "Ejercicio terapéutico con dolor crónico: una verdad inconveniente" hitzaldiarekin (mundu-mailako espezialista da, 200 argitalpen baino gehiagorekin). Bestetik, M^a Dolores Sosa doktoreak ere ekarpena egin zuen, "Efectividad del ejercicio terapéutico en pacientes con fibromialgia" hitzaldiarekin.

Horrez gain, Miguel Arroyo doktoreak gogorarazi zigun ariketa terapeutikoaren onurek onkologiaren esparrua ere barnean hartzen dutela, "Beneficios del ejercicio terapéutico en pacientes oncológicos" hitzaldiaren bidez. Bere baieztapenak egiaztatzeko, zenbait estatistika aurkeztu zituen, zalanztaz izpirik uzten ez dutenak: ariketa egokia eginda minbiziaren errekurrentzia % 21 eta 35 artean murrizten da. Horrez gain, Alejandro San Juan doktoreak paziente onkologikoaren bilakaera-fase bakoitzera egokitutako ariketa terapeutikoa buruz hitz egin zuen. Hizlari hori

Espainiako pediatriako ospitale barneko lehen gimnasioaren sortzaileetako bat da, Reina Sofía Ospitalean.

Ángela Rio fisioterapiako doktoreak hitzaldi hau aurkeztu zuen: "Ejercicio Terapéutico en linfedema"; horren bidez, agerian jarri zuen ebidentzia zientifikoak abalatu egiten duela paziente horiei fisioterapia preskribatzea; izan ere, adierazi zuen duela gutxi arte, ariketa egitea zorrotz mugatzen zitzaizela.

Buru-osasunak ere bere lekua izan zuen, Daniel Catalán doktorearen eskutik, "Ejercicio terapéutico en salud mental" hitzaldiarekin. Errezidibean prebentzioan eta murrizketan ariketa terapeutikoak duen garrantzia nabarmendu zuen. Ondoren, Ana B. Varas doktoreak "Mantenimiento de los efectos del entrenamiento físico y la modificación del nivel de actividad en pacientes con EPOC" hitzaldia aurkeztu zuen; bertan, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa duten pazienteek ariketa terapeutikoko bere programarekin bat egitea lortzeko estrategia onenei buruz eginiko

azterlanaren emaitzak partekatu zituen.

Eta amaiera borobila emateko, Michel Le Métayer doktorearen hitzaldia entzun ahal izan genuen. Le Métayer 1932an jaio zen, eta "Educación propioceptiva y juego, medios educativos terapéuticos de los trastornos motores de origen cerebral" izeneko hitzaldiaren bidez, lanbidearekiko bere pasioa eta ezagutza handiak transmititu zizkigun.

Laburbilduz, jardunaldi bikainak izan ziren, maila goreneko hizlari nazional eta nazioartekoekin. Horrez gain, ONCEren Eskolak eginiko antolakuntzalan zoragarria ere nabarmendu beharra dago. Jardunaldietan tresna honen ebidentzia zientifiko irmoa aurkeztu zen, osasunaren arlo ezberdinetan, eta agerian jarri zen garrantzitsua dela ariketa terapeutikoa horretarako gaituta dauden adituek agintzea; alegia, fisioterapeutek.

Idazketa Kontseilua



Merkatuko Benda Neuromuskularrik Orekatuena


BERRIA!

**Koloretan
Ilustratutako
62 Aplikazio
Praktiko**



TEMTEX® lehen mailako osasun produktu gisa sailkatuta dago.

* Aitex zuntz teknologikoen institutuak ziurtatutako datuak



www.biocorp.es | +34 943 577 614



EFEO ADEMGIren Udaberriko Afariaren 12. edizioan izan zen

Apirilaren 5ean, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko presidente Iban Arrien Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak antolatutako Udaberriko Afariaren 12. edizioan izan zen, Donostiako Silken Amara Plaza hotelean.

Jardueraren helburua hauxe zen: funtsak lortzea ADEMGItik Gipuzkoan esklerosi anizkoitza duten pertsonen eskaintzen zaizkien errehabilitazio-zerbitzuak finantzatu ahal izateko.

Urtero bezala, ekitaldi solidario horretan esparru sozial guztietako pertsonalitate nabarmenak elkartu ziren, esklerosi anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko beren ekarpena egiteko asmoz.

Besteak beste, Nekane Murga andrea izan zen bertan, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua; ez zuen aukera galdu nahi izan gaixotasunak eragindakoei bere babesa adierazteko.

Afarian, Iban Arrienek zuzenean zoriondu ahal izan zuen Osasun sailburua, EFEOren izenean, erantzukizun handi-handiko bere kargu berriagatik. Era berean, elkargoa bere esanetara duela adierazi zion, fisioterapiari lotutako gai guztietarako, uste baitugu gure lanbiderako ezinbestekoak direla.

Espero dugu Osasun sailburuarekin izandako elkarrizketa atsegin horiek elkargoaren eta haren arteko harremana erraztu izana, betiere fisioterapiaren onurarako.

Azkenik, ulertzen dugu EFEOk ADEMGIrena bezalako ekimenak babesten jarraitu behar duela, gaixotasun guztien aurkako borrokan gure konpromisoa erakusteko.

Idazketa Kontseilua



Elkargoaren beste jarduera batzuk



MARTXOAREN 23a
Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu
Nagusiaren Batzar Nagusia



APIRILAREN 16a
ZAHARTZAROarekin (Geriatría eta
Gerontologiako Euskal Elkarte)
lankidetzaren hitzarmena sinatzea



APIRILAREN 15a
Arreta Goiztiarraren I.
Egunean parte hartzea



MARTXOAREN 15a
Erretiratutako erizainei omenaldia,
Gipuzkoako Erizaintzako Elkargo
Ofizialak antolatuta



Formación especializada para **Profesionales**

MÁSTER UNIVERSITARIO EN AVANCES EN NEURORREHABILITACIÓN DE LAS FUNCIONES COMUNICATIVAS Y MOTORAS

(Título Oficial) 5ª Edición

Modalidad: semipresencial

10 seminarios de noviembre 2019 a mayo de 2020

MÁSTER UNIVERSITARIO EN FISIOTERAPIA DEL DEPORTE Y RECUPERACIÓN A LA ACTIVIDAD FÍSICA

(Estudios pendientes de verificar por el Consejo
de Universidades)

- Gimnasia Abdominohipopresiva. Nivel 1
- Valoración y Tratamiento Fascial
- Formación en Acupuntura y Tratamiento del Dolor relacionado con el Sistema Músculo-Esquelético
- Fisioterapia Respiratoria para Adultos
- Fisioterapia en el Marco de los Trastornos del Equilibrio
- Introducción a INN: Integración de Neurodinámica en Neuror rehabilitación

- Bases de la Alimentación, Nutrición Humana y Dietética: Aplicación en Fisioterapia
- Fisioterapia del Periparto
- Ecografía Práctica
- Dolor Neuromuscular y su Abordaje con Fisioterapia Invasiva
- Principios de Exploración, Tratamiento y Manejo de los Trastornos Neuro-músculo-esqueléticos
- Fisioterapia en Disfunciones Digestivas y Coloproctología
- Nutrición y Dietética Aplicada, Soporte Vital para el Rendimiento Deportivo
- Ejercicio Terapéutico en Población con Patología Neurológica (adultos y niños) en Diferentes Entornos de Tratamiento (sala y piscina)
- Actualización en la Evaluación y el Tratamiento de las Patologías de la Extremidad Superior
- Fisiopatología y Abordaje de la Articulación Temporomandibular



ESCUELAS UNIVERSITARIAS
GIBERNAT-CANTABRIA

www.eug.es

#masqueunaescuela

f EUGimbernat t @EUGimbernat

C/ Aurelio García Cantalapiedra, s/n
39316 Tanos - Torrelavega (Cantabria)
Tel. 942 801 650 - 942 801 648
fisio.tor@eug.es

Taller sobre Parkinson: Prevención de Caídas, Ejercicio y Actividad Física en Parkinson



Ponente- Irakaslea: Dra. Meg E. Morris

Fechas - Datak: 20 de julio de 2018

Pilates Suelo para Fisioterapeutas



Profesora- Irakaslea: Natalia Wierzesen

Fechas - Datak: 5, 6 y 7 de octubre de 2018 - Seminario 1



Fisioterapia Vestibular



Profesor- Irakaslea: Rodrigo Castillejos

Fechas - Datak: 17 y 18 de novimebre de 2018 - Seminario 1

Spine & Control: Abordaje Clínico Del Dolor Lumbar



Profesores- Irakasleak: Iván De La Calle y Javier Aguilera

Fechas - Datak: 23, 24 y 25 de noviembre de 2018

Belauneko artrosirako ariketa fisikoko programak diseinatzeko jarraibideak

Jon Gorriño Angulo - Colegiado 1296 COFPV

Sarrera

Belauneko artrosia gizarte modernoko afekzio degeneratibo ohikoena da, baita gehien ezgaitzen duena ere ⁽¹⁻³⁾. Belauneko eta aldakako artrosia heldu nagusien hezur eta muskuluetak minen kausa nagusia da ⁽²⁻³⁾. Gaixotasun hori pazienteen mugapen funtzionalaren eta minaren arduraduna da ⁽¹⁻³⁾. Badirudi minak subjektuen bizi-kalitatean eragin nabarmena duela, eta farmako gehigi hartzeko eta artroplastia gomendatzeko lehen arrazoia da ⁽²⁾.

Artrosia edo osteoartritis (OA) gaixotasun degeneratiboa da, artikularra eta konplexua, askotariko arrisku-faktoreak dituena. Faktore horiek hiru ataletan bereizten dira: genetikoak (% 40-60a arteko herentziaren eragina esku, belaun eta aldakako artrosirako), konstituzioari lotutakoak (adina, emakumezkoa, obesitatea, hezur-dentsitatea) eta biomekanikoak (artikulazioetako lesioa, aisialdiko eta laneko erabilera, muskuluetak indarraren galera, defizit propiozeptiboa, laxotasun artikularra, alineazio artikular txarra...) ^(1, 2). Uste denaren aurka, OA ez da zahartzeagatik agertzen; adinak narriadura artikularra aurrera dezake, baina badirudi arestian aipatutako arrisku-faktoreek eragin handiagoa dutela ⁽³⁾. Honako hau da artrosia duten pazienteen ohiko sintomatologia: mina, zurruntasuna, oreka-nahasmenduak zutik daudenean, eguneroko jarduerak egiteko zailtasuna, ezegonkortasuna eta artikulazioen lerrokadura eza, muskuluen atrofia eta horren ondorioz indarra eta erresistentzia galtzea, bolumen artikularra areagotzea, obesitatea edo gainpisua, komorbilitate kardiobaskularra, depresioa eta/edo antsietatea, bizitasuna galtzea, loaren alterazioak, muga okupazionalak,

sozialak eta aisialdikoak, lan egiteko gaitasuna murriztea, etab. ⁽³⁾

Artrosia diagnostikatzeko erabilitako irizpideetan adostasun argirik ez badago ere, Erreumatologiaren Espainiako Sozietateak proposatzen du klinika eta proba diagnostikoak uztartzea (hala laborategikoak nola erradiologikoak) gaixotasun hori diagnostikatzeko ⁽⁴⁾.

Dirudienez, artrosiak eta jarduerarik ez egiteak gorpil zoro bat osatzen dute: zenbat eta gutxiago mugitu artikulazioa, orduan eta ahultasun eta zurruntasun handiagoa sentitzen da, eta aldi berean gaitasun aerobikoa murrizten da, zeinak baldintzatu egiten baitu subjektuaren mugitzeko gaitasuna edo jarduera orokorra ⁽¹⁾. Gaur egun, jarduera fisikoa funtsezkotzat jotzen da osteoartrisiaren kontserbazio-tratamenduan ^(1, 2, 3). Ariketa fisiko aerobikoko programak gauzatzea eta muskuluak indartzea onuragarria da mina murrizteko eta funtzionalitatea hobetzeko artrosi arina eta/edo moderatua duten helduetan ⁽¹⁾. Are gehiago, ikerketa batzuek ebakuntzen emaitzak alderatu dituzten terapia fisikoaren emaitzekin, eta ondorioztatu dute ez dagoela alde handirik ebakuntza egin dieten eta hasieratik terapia fisikoa jaso duten pazienteen artean, funtzionalitate artikularrari dagokionez ⁽⁵⁾. Itxuraz, emaitza arrakastatsuak lortzeko, ebakuntzaren ondoren fisioterapia askoko programak agindu behar dira ⁽⁵⁾.

Fisioterapeutok, osasunaren arloko profesional gisa, jarduera fisikoa erabil dezakegu eta erabili behar dugu belauneko artrosia duten pazienteen osasun-egoera zaintzeko.

Pautas para el diseño de programas de ejercicio físico

Autore batzuen arabera ^(2, 6), edozein esku-hartzeren aurretik beharrezkoa da artrosia duen pazientearen ebaluazioa eta azterketa holistikoa egitea (alderdi soziala, kognitiboa, okupazionala, psikologikoa, loaren kalitatea, komorbilitateak, ariketarekiko duen jarrera, minaren ebaluazioa...). Horrez gain, iradokitzen da honako hauek kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak direla belauneko osteoartritis tratatzeko orduan ^(2, 3, 6, 7): hezkuntza eta informazioa, jarduera fisikoa eta gorputzaren pisuaren maneia. Diziplina anitzeko tratamendua eman behar da, eta hauek barnean hartu behar ditu: hezkuntza eta automaneia, maneio ez-farmakologikoa (ariketa aerobikoa, indar-ariketa, elektroterapia, ortesia, laguntzak eta gailuak, tratamendu inbaditzailea, telefono bidezko harreman erregularra, esku-hartze psikosozialak), tratamendu farmakologikoa (azetaminofena, HKEE selektiboak eta ez-selektiboak, HKEE topikoak eta kapsaizina, kortikoide eta hialuronatoen injekzioak giltzaduren barruan, glukosamina eta/edo kondroitina-sulfatoa sintomak arintzeko...), minaren tratamendua eta ebakuntzak egiteko aukera ⁽²⁾.

Osteoarthritis Research Society International (OARSI), European League Against Rheumatism (EULAR), American College of Rheumatology eta Kirol Medikuntzaren Amerikako Elkargoak (ACSM) gomendatzen dute ariketa aerobikoa egitea, muskuluak indartzea eta malgutasun-ariketak egitea artrosia tratatzeko ^(2, 3, 6, 7). Jarraian bildu ditugu "MOVE" akordioak eta Ottawa Panel taldeak ezarritako zenbait jarraibide, ariketa fisikoak belauneko osteoartritisen duen eraginarekin lotuta ⁽²⁾:

1. "MOVE" akordioaren



gomendioak:

- a) Muskuluak sendotzea eta ariketa aerobikoa egitea onuragarria izan daiteke mina murrizteko eta funtzioa eta osasun-egoera hobetzeko.
- b) Ariketen programek, eraginkorrak izango badira, aholkularitza eta hezkuntza hartu behar dituzte barnean, bizi-estilo positiboa sustatzeko, jarduera fisikoa areagotuta.
- c) Hala ariketa anbulatorioak nola taldekakoak eraginkorrak dira, eta pazientearen lehentasuna hartu behar da aintzat.
- d) Ariketak hobeto eta luzaroan egiteko estrategiak erabili behar dira, hala nola ariketak monitorizatzea, epe luzera azterketak egitea edo familia sartzea ariketen programan.

2. Ottawa Panel taldearen gomendioak, ariketa fisikoak osteoartritisean duen eraginaren harira:

- a) Beheko gorputz-adarren indartze isotonikoa (zentrokidea eta eszentrikoa) eta isometrikoa egitea, nagusiki koadrizepsak eta iskiotibialak landuz, mina eta funtzionalitatea hobetzeko.
- b) Ariketa fisiko zentrokidea egitea, mina arintzeko atsedeen-egoeran eta jarduerak gauzatzean.
- c) Ariketa fisiko zentrokidea-eszentrikoa egitea, mina arintzeko atsedeen-egoeran eta jarduera funtzional espezifikoa egitean: 15 minutuz ibili eta eskailerak igo eta jaitsi.
- d) Ariketa fisiko anbulatorioa egitea mina arintzeko, egoera funtzionala hobetzeko, energia gehiago izateko eta flexio-mugimendu handiagoa izateko.
- e) Ariketa fisiko orokorra egitea beheko gorputz-adarrekin (muskuluen indarra, malgutasuna eta



“You’re doing great - keep it up.”

mugikortasuna/koordinazioa barne), gaueko mina arintzeko eta eskaileretan trebetasuna hartzeko.

- f) Ariketa fisikoa egitea beheko gorputz-adarrekin, pixkanaka karga gehiago jarritz, mina arintzeko atsedeen-egoeran eta mugimendu-arkuetan.

ACSMk, berriz, honako gomendio hauek ematen ditu⁽²⁾:

- a) Oreak- eta/edo propiozepzio-ariketak egitea.
- b) Soilik programaren aldagaietako bat aldatzea aldi bakoitzean: errepikapenak, erresistentzia edo maiztasuna.
- c) Lan-kantitatea % 5 baino gehiago areagotzea astero.
- d) Pazienteek min handiagoa sentitzen badute entrenamenduaren maila jakin batean, ez da karga handitu

behar maila horretan, eta beste ariketa batzuk egin behar dira min ematen duten estimuluen ordean.

- e) Ez dira muskulu talde bererako erresistentzia muskularreko ariketak egin behar elkarren segidako egunetan.
- f) Ez da 3 baino gehiagoko minik jasan behar (0-3, 10eko eskala batean).
- g) Minak gutxitu egin behar du ariketekin. Mina handitu egiten bada, jarduera eten egin behar da.
- h) Minak ez du iraun behar ariketa bukatu ondoren. Irauten badu, guztiz desagertu arte itxaron behar da, eta orduan berrirori lanari ekin, karga txikiagoarekin.
- i) Ez da klaudikazioa toleratu behar. Ariketak klaudikazioa eragiterainoko mina badakar, gaizki egiten ari gara edo

gehiegizko intentsitatearekin.

Intentsitate moderatuko ariketa aerobikoa eta erresistentziakoa egiteak artrosia dutenen egoera klinikoa eta ahalmen funtzionala hobetzen ditu. Antza, ariketa fisikoak kartilago hialinoaren nutrizioa hobetzen du, substantziak hobeto zabaltzen direlako likido sinobialeetik kartilagoaren matrizerara, eta proteoglikanoen sintesia areagotu egiten delako kondrozitoetan.

Programa diseinatzean, kontuan hartu behar dira aurrez ezarritako espektatiben eragina, motibazioa, jardueren indibidualizazioa, jarduera fisikoarekin gozatzeko hasteko gutxieneko atalasea eta eginiko ahalegin fisikoaren inplikazio fisiologikoa^(8, 9). Pazientea motibatzen moduko giroa sortu behar da, eta bere interes eta jarrera partikularrak baloratu; horretarako, pazienteek programak sortzeko eta diseinatzeko prozesuan parte hartu behar dute, eta aukera eman behar zaie jarduerak egokitzeko, hein batean (musika, materiala, helburuak...). Beharrezkoa da egokitzapen okerrak bideratzeko eta ingurunearen babes soziala sustatzeko ahalegina egitea⁽¹⁰⁾.

Uretako ariketek belauneko eta aldakako osteoartritis tratatzeko izan ditzaketen onurei buruzko azken Cochrane azterketaren arabera, jarduera horiek eraginkortasun moderatua dute (epe laburrera) mina murrizteko eta bizi-kalitatea eta funtzionalitatea areagotzeko⁽¹¹⁾.

Programaren eraginkortasunaren azterketa

Ariketen programa batek belauneko artrosia duten pazienteengan izan duen eraginkortasuna baloratzeko, belauneko afekzioentzako funtzionalitate-testa erabil daiteke⁽¹⁾. Test horren bidez alderdi hauek baloratzen dira: oreka (hanka bakarraren gainean iraun dezakeen denbora, kaltetutako hankaren gainean jarrita), indar muskularra (posizio bipedoan iraun dezakeen gehieneko denbora, belaunak 90 gradu tolestuta; eta hankak 90 gradutan jarrita hankekin 20 flexio egiten igarotzen duen gutxieneko denbora) eta erresistentzia aerobikoa (50 metro lau egiteko, 1.600 metro lau egiteko eta 25 cm-ko 100

eskailera-maila igotzeko behar duen gutxieneko denbora).

